euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkartea

Itzulpen tarifa batez bestekoak 2009

Ohar orokorrak

- Itzulpen tarifa hauek EIZIEk bere garaian egindako azterketa baten ondorio dira. Itzulpen salneurri zuzen edo bidezkoak direlakoan, erreferentzia gisa erabiltzeko argitaratu ditugu.

- Tarifa hauek idatzizko itzulpenetarako, ahozko interpretazio lanetarako eta testu zuzenketarako dira baliozko.

- Batez besteko tarifa hauek ez dute inor behartzen, eta ez dute zer esanik itzultzaileak bezeroekin dituen harreman komertzialetan.

- Batez besteko tarifa hauetan jasotakoaz at, itzulpen lan apartekoetan, bereziki zuzenketa lanetan, eta abarretan, bezeroarekin aurrez hitzartu beharko da egin beharreko lanaren ordainsaria.

- EIZIEk urtero berrikusi eta eguneratuko ditu tarifa hauek.

- Diru kopuru guztiak eurotan daude adieraziak.

Zemoria 25 · E-20013 Donostia · Tel.+943 277 111 · Fax+34 943 277 288 · bulegoa@eizie.org

euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkartea

1 – Idatzizko itzulpen lanak

- Itzulpen lan baten balioa kalkulatzeko xede hizkuntzan egindako itzulpenari aplikatu behar zaio dokumentu honetan adierazten den tarifa.

- Gutxieneko itzulpen ekintza orrialde baten adinakotzat joko da, itzulgaia laburragoa baldin bada ere.

1.1 - Oinarriko tarifa

orrialde bat	**18,58 euro**

- Tarifa orrialdeen arabera izan ordez, beste era batera kalkulatzeko baliokide hauek erabiliko dira:

orrialde bat	1.800 letragune
	240 hitz
	30 lerro

1.2 - Oinarriko tarifaren gehikuntzak

Atal honetan azaltzen diren faktoreen arabera, oinarriko tarifari gehikuntzak ezarriko zaizkio, kasuan kasuko ehunekoa gehituta.

- **Sorburu hizkuntzaren araberako gehikuntzak**

Multzoa	Hizkuntzak	Gehi
A	Gaztelera, frantsesa, galegoa, katalana, italiera, portugesa	% 0
B	Ingelesa, alemana	% 25
C	Besteak	% 50

Zemoria 25 · E-20013 Donostia · Tel.+943 277 111 · Fax+34 943 277 288 · bulegoa@eizie.org

Euskara denean sorburu hizkuntza, hizkuntza multzo hauei % 30 gehitu behar zaie, aurreko taulan esandakoaz gain.

- **Itzulgaiaren zailtasunaren araberako gehikuntzak**

Itzulgai mota	Gehi
Arrunta	% 0
Berezia	% 15
Espezializatua	% 25

- **Itzulpena egiteko epearen araberako gehikuntzak**

Presazkotzat jotzen dira oro har 24 orduren barruan egin beharreko itzulpen guztiak, edota eguneko 2.500 hitzez gaindi dauden itzulpen eskaerak.

Itzulpena egiteko epea	Gehi
Arrunta	% 0
Presazkoa	% 40

- **Formatuaren zailtasunaren araberako gehikuntzak**

Formatu mota	Gehi
Testu soileko fitxategia	% 0
Testuez gain, diagramak, taulak edo irudiak dituen fitxategia	% 10
Testu trataera arrunten bidez landu ezin daitezkeen formatuak: HTML, PDF, PowerPoint, kalkulu orriak, datu baseak, Quark, PageMaker...	% 25

euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkartea

2 – Ahozko interpretazio lanak

Aldibereko interpretazioa		
Mota	**Ordainketa bizkorra** [1]	**Ordainketa arrunta**
Lansaio osoa	485	527
Lansaio erdia	387	421
Hitzaldi bakana	387	421
Hitzaldi laburra	328	357
Entsegu orokorra	296	322
Otordu edo prentsaurrekoa biltzarraz kanpo	387	421
Otordu edo prentsaurrekoa biltzarraren barne	241	262
Aparteko lanordua	140	152
Etxetik kanpora egindako bitarteko egunak	Lansaio osoko tarifaren % 50	

Esan osteko interpretazioa		
Mota	**Ordainketa bizkorra**	**Ordainketa arrunta**
Lansaio osoa	561	610
Lansaio osoa (2 interprete)	485	527
Lansaio erdia	461	501
Hitzaldi bakana	423	460
Hitzaldi laburra	328	357
Aparteko lanordua	154	167
Etxetik kanpora egindako bitarteko egunak	Lansaio osoko tarifaren % 50	

«Chuchotage»	
Interprete bakarra	Esan ostekoaren tarifa
Bi interprete	Aldi berekoaren tarifa

[1] Ordainketa bizkortzat jotzen da faktura aurkeztu ondorengo 15 egunen barruan egindakoa.

Zemoria 25 · E-20013 Donostia · Tel.+943 277 111 · Fax+34 943 277 288 · bulegoa@eizie.org

euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkartea

Dietak [2]		
Mota	**Dieta osoa**	**Dieta erdia**
A: Madril eta Bartzelona	217	109
B: Balear Uharteak, Kanariar Uharteak, probintzietako hiriburuak (Madril eta Bartzelonaz at), Santiago, Xerez eta Gijon)	187	90
C: gainerakoak	141	76
Kilometroak	0,30 euro / kilometroko	

3 – Testuen zuzenketa lanak

- EIZIEk ez du tarifa zehatzik gomendatzen testu zuzenketa lanetarako, gisa horretako zereginak mugagaitzak direla jabeturik. Horren ordez, biziki gomendatzen diegu gure bazkideei zuzenketa lana egin aurretik bezeroarekin hitzartu dezatela egin beharreko lanaren ordainsaria eta gainerako baldintza xeheak (eskatzen den zuzenketa mota, epea eta abar).

[2] Kopuruak ordainsari garbia adierazten du, zergak kenduta. Dieta hauek Espainiarako daude kalkulatuak.